

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

224 positibo berri  
2.003 hildako EAEn  
12.748 positibo guztira\* UCln EAEn

### NAFARROAN

362 positibo berri  
624 hildako  
22.636 positibo guztira UCln Nafarroan

\*HERNANIN 390 (+3), ASTIGARRAGAN 90 (+1)

## Eragiyok abesbatza Donostiako San Inazio Elizan izango da, Antxon Sierra Oroituz zikloan

Etzi emango dute kontzertua Groseko San Inazio Elizan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. 2020a amaitu aurretik beste hiru emanaldi gehiago egingo dituzte, eta urtea Astigarragan borobilduko dute, Gabonetako kontzertuan.

### ASTIGARRAGA MUSIKA

Uztailean sare sozialetan emandako online kontzertuaren ondoren, eta irailaren 12an Erribera kulturgunearen inaugurazioan parte hartu eta gero, Eragiyok Abesbatza aurrez-aurreko emandietara itzuliko da. Ostiral honetan, urriaren 16an, 13garren Antxon Sierra Oroituz musika zikloaren barruan abestuko du, Mariaren Bihotza Abesbatzak antolatuta. Kontzertua Donostiako San Inazio elizan (Gros) izango da, arratsaldeko 20:00etan hasita.

Bi zatitan banatutako emandietara izango da. Lehenengo zatian eliz-musikako eta euskal folkloreako piezak entzun ahal izango dira. Bigarren zatian Jose Maria Iparragirre eskainitako tartea iritsiko da. Musikari eta

kantari urretxuarraren jaiotza-aren 200garren urteurrena ospatzen den honetan, bere bizitza eta kantuak gogora ekarriko dituzte Santestebandarrek (aitak eta semeak), Bastidak edota Garbizuk abesbatzarako eta barlarientzako egindako moldaketen bidez. Ohi bezala, Eneko Amundarainek zuzenduko du abesbatza eta, estreinakoz, Ignacio Arakistain pianoan arituko da.

Ekainean, zuzeneko emandietara bueltatu aurretik, online saio berezia eskaini zuen abesbatzak. Kontzertua egin zuten, Simon eta Aritz Goikoetxea txalapartariekin, eta Txirriskla Txistulari Taldearekin. Astigarragako txoko ezberdinetan egin zuten grabaketa, herriari omenaldia egiteko asmotan, eta ko-



Eragiyok Abesbatzako kideak, Astigarragako udalaren atarian.

ronabirusak kolpatu zituen familiak oroitzeko helburuarekin.

### Astigarragan egingo dute, urteko azken kontzertua

Ostiraleko kontzertu honen ostean hiru hitzordu gehiago izango ditu abesbatzak, urtea amaitu

baino lehen: azaroaren 7an Pasai Donibanen Itsas Mendi Musika Taldeak antolatutako Musika Jardunaldiak-en; azaroaren 21ean Portugaleten Nazioarteko Otxoteen Topaketan; abenduaren 12an Astigarragan Gabonetako kontzertua izango da. **K**

## Koronabirusa dela eta, neurri murriztaileak ezarri dira Nafarroan, eta Arano eta Goizuetari eragin diete

Azken asteetan, Nafarroako datuek okerrera egin dute. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak neurri murriztaileak ezarriko ditu lurralde osoan birusaren hedatzeari aurre egiteko. Atzo jarri zituzten indarrean, hainbat esparruri eraginez.

### GOIZUETA-ARANO KORONABIRUSA

Maria Txibite lehendakariak, atzo goizean egindako agerraldi batean, jakinarazi zuen egoera «txarra» dela eta, hamabost egunen buruan intzidentzia gutxitzen ez bada, neurri zorrotzagoak hartuko dituztela. Izan

ere, azken asteetan, Nafarroako datuek okerrera egin dute. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak neurri murriztaileak ezarriko ditu lurralde osoan, birusaren hedatzeari aurre egiteko. Neurri hauek atzo jarri ziren indarrean, eta Urumea Bailarako Arano eta Goizuetari eragin die.

### Bertan behera, adinekoen egoitzetako bisitak

Lehendakariaren arabera, kutsatze foku nagusiak «eremu pribatuan eta aisialdian» gertatzen dira, eta esparru horretan eragingo dute zuzenean, atzo azaldu zituen neurriak.

«Oso kasu berezietan izan ezik», bertan behera utziko dira adinekoen egoitzetako bisitak eta irteerak. Ostalaritzan, edukiera %30era jaitsiko dute; terrazetan, %50era; eta tabernekin eta jate-txeek 22:00etan itxi beharko dute. Merkataritza gune haundietan, gehienezko edukiera %40koa

izango da, eta zinema areto, antzoki eta kulturguneetan, %30ekoa. Elkarte gastronomikoak itxi egingo dituzte, eta ezingo da alkoholik saldu 22:00etatik aurrera. Udalek eskumena izango dute neurri murriztaileagoak ezartzeko.

Txibite lehendakariak herriarrei azaldu die «harreman sozialak gutxitzeko eta joan-etorriak ahal den gehien murrizteko», nahiz eta debekurik ez duten ezarri oraingoz. Eta Carlos Artundo Osasun zuzendariak eskatu du «ia erabat autokonfinatzeko». **K**

## Larregain-Akola bidean, obrak

### EREÑOTZU BERRITZE LANAK

Gaur hasiko ditu Udalak berri-tze lan batzuk Larregain-Akola bidean, eta bidea moztuta egongo da, gutxi gorabehera 2 astez. Ereñotzu-Alkatxuin (eta hemendik Akolara) tarteko bi bideetan norabide bakarra finkatuko da lanek irauten duten bitartean. Izan ere, puntu batzuk arrisku haundikoak dira bi ibilgailu gurutzatzen direnean. Ereñotzitik Alkatxuinera igarotzeko beheko bidetik, Latxebista bidetik, bideratuko dira; eta Alkatxuinetik Ereñotzura jaisteko Katilluzarko bidea erabiliko da.

## Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak aurkezpena, bihar

### URUMEA KULTURA

Eskualdeko sortzaileen topagune eta elkar harremantzeko gune izan nahi du dinamikak, eta horretarako sortu da. Hain justu, eskualdeko gazte sortzaileek elkar ezagutu eta saretzea lortu nahi dute. Bihar egingo dute aurkezpena Atsegindegin, arratsaldeko 18:00etan.

## Emakume Tailerra, larunbat honetan

### GOIZUETA BERDINTASUNA

Emakume Tailerra antolatu dute Goizuetan urrirako, eta bi saio egingen dituzte. Lehena larunbat honetan izanen da goizeko 10:00etan hasita, 14:00ak arte. Tailerrean parte hartzeko izena eman behar da [goizutakoemakumeak@gmail.com](mailto:goizutakoemakumeak@gmail.com) helbidera idatzita edo bestela, 674 086 926 telefonora deituta.

## Zinea gaur, Biterin

### HERNANI ZINEA

Amherrek antolatuta, *O los tres o ninguno* pelikula proiektatuko dute gaur Biterin, arratsaldeko 18:30etan.

**BRINTZA**  
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Lan-Aholkularitza  
Fiskala  
Aseguruak Inbertsioak  
Zerbitzu Juridikoak

www.brintza.com

URBIETA KALEA 15, HERNANI  
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

**MENDIKUZE**  
OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia  
20115 - ASTIGARRAGA

Tel 943 55 15 38  
(J) 630 38 79 10  
(S) 629 66 69 77

**Samitek**

Bulego makinaren salmenta eta mantenimendua

samitek@samitek.es  
www.samitek.es

TOSHIBA

INFORMATIKA  
SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak

**ITXASPE**

Arrandegia  
Antziola 5  
Tel: 943 330 365  
Mobi: 665 735 224  
20120 Hernani

**ERRIOGUARDA-ENEA**

J A T E T X E A

**GAUR**  
ERAMATEKO MENUA  
Porru krema eta  
barazkiak tenpuran.  
"Peskadilla" rebozatua  
piperradarekin.  
Almendrea tarta  
**10,50 €**

Iturriaga kalea, 10. Hernani  
Tel: (943) 33 02 91

**GAUR** Euria barra-barra egingo du ipar partean eta haizea ere bizi ibiliko da. Zaparrada giroa nagusituko da, eta sarri botako ditu. Baliteke zenbait lekutan ekaizak jotzea eta tarteka mardul botako du. Ipar-mendebaldeko haizea bizi-bizi ibiliko da. **Min.9° / Max.14°**

**BIHAR** Arratsaldean zaparradak ahulduz joango dira eta gero eta tartekatuago botako ditu. Egunaren lehenengo zatian, ordea, euritarako egongo da eguraldia eta prezipitazioak denera iritsiko dira. Haizea iparraldetik ibiliko da, kostaldean ahulago. **Min.9° / Max.14°**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087 Gaez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738 Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## 'Gimnasia 65+' ikastaroa asteartean hasiko da, eta izena eman daiteke

Kiroldegiko gimnasia ikastaroko izenematea atzo zabaldu zen, eta ostirala da inskripzioa egiteko azken eguna, kiroldegian bertan.

### ASTIGARRAGA IKASTAROA

Koronabirusa dela eta adineko pertsona asko geldirik egon dira martxotik. Hori dela eta, Astigarragako Udalak aste honetan *tti-pi-ttapa* programa jarri du abian, eta urriaren 20an, kiroldegiko *Gimnasia 65+* ikastaroari ekingo diote. Astean bi saio izango dira, baina hasiera batean behintzat, erabiltzaile bakoitzak soilik egun batean eman ahal izango du ize-

na. Ondoren, bigarren egunean lekua soberan egongo balitz, aukera emango litzaieke erabiltzaile horiei, bigarren egunean parte hartzeko.

Bestalde, bizi dugun osasun egoera kontuan izanda eta ahalik eta pertsona kopuru handienari parte hartzeko aukera emateko, zenbait egokitzapen egin dira ikastaro honetan. Hain justu, bi saio izango dira astean: astearte eta ostegunetan, goizeko

10:30etatik 11:00etara bitartean. Saio bakoitzean 10 parte-hartzaile egongo dira gehienez, eta ikastaroko begiralea. Horretaz gain, osasun neurriak bermatzeko, saioak kanpoan egitea lehenetsiko da, aire librean. Eta maskarillaren erabilerari dagokionean, derrigorrezkoa da hau jantzita izatea saioa hasi baino lehen eta amaitu ondoren; hala ere, saioan zehar ez da beharrezkoa izango neurri hori betetzea.

Jarduerak 15 euroko tasa izango du, hiruhileko. Bigarren egunerako izen-ematea egiten dutenek, berriz, bi aldiz ordaindu beharko dute aurretik aipatutako tasa. **K**



Urigain etxean eman daiteke izena, eta bertan egingo dute formakuntza faseko orientazio atala.

## Laneratzen laguntzea helburu duen Hazilan programan izena eman daiteke

Gazte enplegua sustatzeko proiektua da, eta Beterri-Buruntzako Udalek eraman dute aurrera. Urriaren 22a da ekimenaren hasiera data.

### URUMEA ENPLEGUA

Beterri-Buruntzako Udalek aurrera eramaten ari diren programa da Hazilan, eta 20-44 urte bitarteko gazte kualifikatuei zuzenduta dago. Helburu nagusia «laneratzen laguntzea» da, eta urriaren 22an izango da ekimenaren hasiera data.

Garapenek (Garapen Agentzien Euskal Elkarte), proiektuko kide diren hogeita garapen agentziekin batera, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta Europako Gizarte Funtzarekin (%50eko finantziarioarekin) elkarlanean jarri zuen abian 2016-2021 aldirian, Hazilan laneratze-proiektua. Profil zehatz bati bideratu-

takoa da programa hau. Alegia, «langabetuen artean, 20-44 urte bitarteko gazte kualifikatuak, unibertitate tituludunak edo goi mailako ikasketak dituztenak» dira proiektuaren erronka nagusia.

Proiektuak enpresen premia errealean identifikazioa du oinarri. Premia horien arabera, pertsona kualifikatu batzuk hautatu eta baliabideak eta prestakuntza jasoko dituzte, enpresa-proiektuarekin motibatuta eta inplikaturik egongo den talde batean sartzeko beharrezkoak direnak. Hazilanez metodologia berritzailea dakar, gaitasun pertsonalen eta enpresa-proiektuaren araberrako ibil-

bide pertsonalizatu batekin. Batetik, konpetentzia pertsonalak eta profesionalak lantzen dira eta, bestetik, aukera eskaintzen da lanpostuari lotutako prestakuntza espezializatua jasotzeko, enpresan praktikak egiteko edo enpresako proiektuak garatzen parte hartzeko.

Lehenengo formakuntza fase bat egingo da, bi ataletan banatua. Lehena, 80 orduko orientazio fasea, Andoaingo Urigain etxean; eta bigarrena, Lanbideko ikastaroa, *La academian*, Donostian. Horren ondoren, 200 orduko praktikaldia egingo da enpresetan.

### Izena emateko, bi aukera

Proiektuan izena emateko interesa dutenek, bi bide dituzte. Telefonoz egin dezakete, 943 30 08 30 (394 telefono luzapenarekin), edo aurrez aurre, Andoaineko Urigain etxean. **K**

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**MARICRUZ MAKAZAGA CRUZADO**

(Inaxio Ayestaranen alarguna)

Atzo hil zen, 78 urte zituela

Alabak: Idoia eta Karmele; anai-arrebak: Juanjo, Kintxo eta M<sup>o</sup> Pilar Aranburu (†), Rosina, Evaristo Ayestaran (†) eta M<sup>o</sup> Lourdes Urdangarin, Antxon Ayestaran (†) eta Mariasun Telletxea; ilobak, eta gainerako ahaideak.

**Añorga-Hernanin, 2020ko urriaren 14an**

OHARRA: Gorputza Errekaldeko VASCONGADA EHORKZETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 13:30ak arte.

**MARICRUZ MAKAZAGA CRUZADO**

Bizitza bizi zale,  
onean, latzean...  
Nahiz gu mindu garen zuk  
deskantsu hartzean,  
ze ederragorik utzi  
daiteke atzean  
goxotasun hau baino  
zu gogoratzean.

**ZURE BETIKO LAGUNAK**

**Añorga-Hernanin, 2020ko urriaren 14an**

**SANTOS BARRIO SAGASTUME**

Herenegun hil zen, 74 urte zituela

Orain arte bezala,  
gero ere elkartuko gaituk.

**1967ko KINTOAK**

**1967ko KINTOAK**

**Hernanin, 2020ko urriaren 14an**

**SANTOS BARRIO SAGASTUME**

Aulki huts bat zuenean  
aita joan zaizuenen,  
bai gizon umoretsua  
[ai giroan, pin artean,  
gaitzaren ondorioz,  
sufritu du azkenean  
orain deskantsa dezala  
lasai lasai ta bakean,  
eta beti egongo da  
Santos gure bihotzean!

Larraitz, Silvia,  
Miren eta Mirari

**ESKERTZA**

**Jone Errazkin Aldasoro**

Orain egun gutxi hil zen

Joneren senarrak, alabak eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**

**Hernanin, 2020ko urriaren 14an**

### IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**